

TXOMINEN BAZKARIA

Negua da eta Txomin kalez kale dabil ardi galduaren moduan. Hotz handia egiten du. Ez dauka dirurik eta hainbesteko gosea dauka, behi handi bat ere jango lukeela.

Bat-batean, ostatu handi bat ikusi du Txominek. Ostatuko leihotik emakume bat ikusi du platerkada bat zopa jaten. Adurra dariola dago Txomin. Birritan pentsatu gabe barrura sartu da. Tripak orroaka ditu. Mahai batean eseri da, baina ez dator zerbitzaririk. Ingurura begiratu du. Inor ez dabil jaten. Mahaietan itxaroten dauden guztiak amorratuta daude. Txomin konturatu da zerbait gertatzen ari dela. Ondoko mahaiakoak zutitu eta sukaldera joan dira zer gertatzen den galdetzeraz. Sukaldariak erantzun die denbora behar dutela janaria prestatzeko. Sukaldariaren erantzunarekin sututa irten dira denak sukaldetik eta sekulako iskanbila sortu da.

Iskanbilaren erdian, Txomin sukaldeko izozkailura joan da eta han hasi da jan eta jan. Asetu denean, txokotxo batean eseri da. Zerbitzaria etorri denean, hauxe galdetu dio:

-Zer egiten duzu hor? Ez al duzu bazkaldu behar?

Txominek lasai-lasai erantzun dio:

-Ez, sukaldeko usainarekin nahikoa dut.

Zerbitzariak, harrituta, ordaintzeko eskatu dio.

Txominek, daukan txanpon bakarra hartu eta lurrarren kontra jo du.

-Entzun duzu diruaren hotsa?

-Bai –erantzun dio zerbitzariak.

-Ni usainarekin konformatu naizen bezala, zu diruaren hotsarekin konformatuko zara –esan dio Txominek.

Hori esanda, alde egin du.